

## C1C1 Hizkuntza-eskakizuna

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 maila

| IDATZIZKO AZTERKETA    |   | Iraupena |
|------------------------|---|----------|
| <b>Irakurmen-proba</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• <u>Egitekoa</u>: gutxienez bi testu eta bi ariketa.</li> <li>• <u>Ezaugarriak</u><br/>Testuak luzera desberdinekoak eta era askotarikoak izango dira.<br/>Testuen luzera guztira: 900 hitz gehienez<br/>Gutxienez 10 item.<br/>Item kopurua desberdina izan daiteke ariketa bakoitzean.</li> </ul> <p><u>Ariketa motak</u>: aukera anitzeko galderak, loturak egin (ideiak/izenburuak/paragrafoak lotu), hutsuneak bete (cloze testa, esaldiak txertatu...), testua ordenatu eta abar.</p>   | 35 min   |
| <b>Idazmen-proba</b>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>• <u>Egitekoa</u>: Bi ariketa. Erregistro formaleko idatziak izango dira. Helburu profesional, akademiko edo sozialekoak. Gai espezifikoak izan gabe, baina bai konplexuak.</li> <li>• <u>Ezaugarriak</u>: <ul style="list-style-type: none"> <li>1. <u>ariketa</u>: gutxienez 180 hitz idatzi beharko dira.<br/>Kexatzeko, eskaria egiteko, argibideak/informazioa emateko, iradokizunak egiteko... administrazio arloko idazkia.</li> <li>2. <u>ariketa</u>: gutxienez 180 hitz idatzi beharko dira.<br/>Azalpenak eman, iritzia eman eta argudiatu, konbentzitu, iruzkinak egin, balorazio pertsonala eman, lekuak/pertsonak/gauzak zehaztasunez deskribatzeko... iritzi-artikulu/txostena/iruzkina.</li> </ul> </li> </ul> | 90 min   |

| AHOZKO AZTERKETA       |   | Iraupena                                    |
|------------------------|---|---|
| <b>Entzumen-proba</b>  | Entzumena mintzamenarekin batera ebaluatuko da, berariazko entzumen-probarik egin gabe.   | Mintzamen-probak irauten duena.             |
| <b>Mintzamen-proba</b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• <u>Egitekoa</u>: Saio bakoitzean bi azterketari arituko dira. Bi ariketa egin beharko dituzte. Lehenengo ariketa egiteko, aldez aurretik gai bana prestatuko dute, bakoitzak bere aldetik. Bikoteak osatzeko azterketari nahikorik ez badago, bakarrik geratu den azterketariak aztertzaile batekin egingo du bigarren ariketa.</li> <li>• <u>Ezaugarriak</u>: <ul style="list-style-type: none"> <li><u>0. Identifikazioa</u>: (Ez da ebaluatuko). Ariketei ekin baino lehen, azterketariak izen-abizenak eta NAN zenbakia esan beharko dituzte.</li> <li><u>1. ariketa</u>: (Bakarrizketa. Gaia azaldu, iritzia eman). Aldez aurretik prestatutako gai baten azalpena egin, gaiari buruzko iritzia eman eta beste azterketariari entzundako azalpenari buruz aztertzaileak galdetutakoari erantzun. Euskarria: azterketari bakoitzak gai bat, hari buruzko argazkiak+informazio laburra eta galdera zehatz batzuk gai horren azalpena/iritzia bideratzeko. Denbora: 4 min garatzeko eta minutu bat aztertzailearen galderei erantzuteko. Azterketari batek bukatzen duenean, besteak ekingo dio.</li> <li><u>2. ariketa</u>: (Bat-bateko elkarrizketa). Gai bera bi azterketarientzat. Ikuspuntu kontrajarriak, bakoitzak berea defendatzeko. Hasteko, bakoitzak bere ikuspuntua azalduko du, labur. Ondoren, elkarrizketan edota eztabaidan arituko dira. Epaimahaiak parte har dezake elkarrizketa bideratzeko/jarduna orekatzeko. Euskarria: bi fitxa. Gai/egoera bat eta, argazki/eskema bidez, hari buruzko iritzi kontrajarriak. Denbora: 1 min fitxa begiratzeko. 10 min bien artean eztabaidan jarduteko.</li> </ul> </li> </ul> <p>Adierazten diren denborak gutxi gorabeherakoak dira. Edonola ere, aztertzaileek erabakiko dute azterketak zenbat iraungo duen.</p> | 35-40 min<br>(15 min gaia prestatzeko dira) |